



**OLATUKOOP**

---

# Saretze-Eguna

2022-2023 ikasturtea

Gasteiz  
EKAINAK 10

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA

GASTEIZEN eta ARABAN HARREMANAK JOSTEKO

**PRENTSA-OHARRA**

Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzaileko (ESEko) sareak 9 urte bete berri ditu eta ekainaren 10ean urteroko Saretze-Eguna antolatuko du Gasteizen.

Helburu nagusia Gasteiz eta Araban Ekonomia Sozial Eraldatzaileko (ESEra) hurbildu nahi duten eragileekin harremanak jostea izango da.

Horretarako, Olatukoopeko sare-kideak bertan izango gara gure jarduna eta esperientziaren berri emateko, baina Olatukoop zer den azaltzeaz gain, Araba eta Gasteizen zein erronka dauden eta horiei ESEren bitartez nola erantzun daitekeen hausnartu eta pentsatuko dugu elkarrekin. Izan ere, Gasteizen eta Araban ere bizitza erdigunean jarriko duen ekonomia bat martxan jartzea eta denetariko eragileak ehundu eta jostea garrantzitsua da.

Amaieran, *KoopFabrika Hegoaldetik* proiektua eta Kataluniako *MigrESS* kolektiboaren esperientziak ezagutzeko aukera izango dugu.

MigrESS migrazioa eta ekonomia sozial eta solidarioa ditu ardatz Bartzelonako taldeak. Elkarrekin gizarte aniztasuna, arrazakeriaren aurkakoa eta solidarioa sustatzen du, eta etorkinen eta errefuxiatuen eskubideak defendatu nahi ditu.

[KoopFabrika](#) ekonomia soziala eta eraldatzailea eta ekimen kooperatiboa sustatzeko programa bat da. Programa honen bidez, proiektu profesionaleri eta ekimen sozioekonomikoei lagundu nahi zaie, beren kooperatibak / proiektuak abiarazi nahi dituzten norbanakoei eta taldeei trebakuntza eta laguntza emanaz. [Hegoaldetik KoopFabrika](#) berriz, pertsona migratuentzat bideraturiko ekintzazailza kooperatiboko programa da.

Beraz, animatuta zaudete bertan parte-hartzera.

---

*Oharra:* antolaketan laguntzeko, izen-ematea egitea eskatu nahi da, [koordinazioa@olatukoop.eus](mailto:koordinazioa@olatukoop.eus) helbide elektronikora idatzita edo ondorengo [galdetegi hau](#) beteta.

---

Elkarrizketaren bat nahi izanez gero, idatzi [koordinazioa@olatukoop.eus](mailto:koordinazioa@olatukoop.eus) helbide elektronikora edo deitu 645 719 519 telefono zenbakira eta Leire Udabegatik galdetu.

### Egitaraua:



**OLATUKOOP**

# EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA

**GASTEIZEN HARREMANAK JOSTEKO**

**GORDE DATA**

## Ekainak 10 JUNIO

**CENTRO CULTURAL  
MONTEHERMOSO  
KULTURUNEA**

<b>9:15 - 9:45</b>	<b>Ate irekiera</b>	Apertura de puertas
<b>9:45 - 10:15</b>	<b>Harrera eta ongi-etorria</b>	Acogida y bienvenida
<b>10:15 - 11:00</b>	<b>Olatukoopen aurkezpena: genealogia, egungo egoera, lurraldeetan esku-hartzea eta esperientziak.</b>	Presentación de Olatukoop: genealogía, situación actual, intervención territorial y experiencias
<b>11:00 - 11:45</b>	<b>Araba eta Gasteizen ESE sustatzeko talde-dinamikak</b>	Dinámicas de grupo para la promoción de la EST en Araba y Gasteiz
<b>11:45 - 12:15</b>	<b>Atsedena</b>	Descanso
<b>12:15 - 12:45</b>	<b>Partekatzea eta galderak</b>	Contrastes y preguntas
<b>12:45 - 13:00</b>	<b>Migress eta Hegoaldetik KoopFabrika aurkezpena</b>	Presentación de Migress y Hegoaldetik KoopFabrika
<b>13:00 - 13:15</b>	<b>Itxiera</b>	Fin